

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

1980tik temperaturaren igoerak fase ezberdinak izan ditu, orain 1.1°C-an gaude. Hazkundera ez da homogenea, poloetan baitago eragin handiena. Temperaturen igoeraren arrazoi antropogenikoak erregai fosilen erabilerari eta lurrunen erabilerari lotuta daude. 2018an atmosferako karbonoaren % 86 erregai fosiletatik zetorren, eta % 14 lurzorua erabileraren aldaketetatik. Kantitate horren % 44 atmosferan geratu zen, % 29 landarediak hartu zuen eta % 23 ozeanoak. Atmosferaren CO₂-a isurbidearen arabera aldatzen da, hau da, landaretzaren arabera. Gaur egun, landaredia klima-aldaketa arintzeko irtenbidea izateko itzaropena dago.

2100erako temperatura 1.5°C baino gehiago ez igotzea nahi badugu, CO₂-aren % 9 baino ez zaigu geratzen isurtzeko, eta, gaur egungo erritmoan, 10 urte barru lortuko dugu.

Klima-aldaketa gure erronketako bat da. Hausnartu egin behar da nola bizi nahi dugun eta ongizateak zer esan nahi duen. Hori eginez gero, natura eta biodibertsitatea babesteko eta klima-aldaketa arintzeko aldaketak egin behar ditugula ondorioztatuko dugu. Dena lotuta dago. Gure gizarte-ereduan izan nahi ditugun printzipioak erreparasatu behar ditugu.

Krisi klimatikoari eta beste krisiei batera heldu behar zaie. Berotze globalaren aurka borrokatzeko modu asko daude, baina horietako askok egungo pandemiaren aurka edo etorkizunean etor daitezkeen krisi berrien aurka egiteko balio dute. Covid-19aren krisiak krisi klimatikoa indartzeko balio dezake, eta alderantziz. Egungo krisiei aurre egiteko, eraldaketa sakonak egin behar ditugu esparru guztietan.

Sistema sozioekonomiko konplexu bati lotutako sistema fisiko konplexu bati heltzen ari gaitzaizkio, ekonomia, ingurumena eta gizartea elkarri lotuta daudela jakin behar dugu, sistema parte-hartzaileago bat eraiki behar dugu Europak lortu nahi duen Green Deal horretara iristeko. Horrek berekin dakar benetan sostengatzen gaituena baloratzea.

Konplexutasunak ez gaitu beldurtu behar. Osasun krisiak bizkortu egingo ditu Covid-19aren aurretik zeuden aldaketak. Konfinamenduan zehar gertaturiko kutsaduraren bat-bateko beherakadak argi eta garbi erakusten du energia-eredua aldatzen dugunean aldaketa iritsiko dela. Erradikalismorik gabe, baina gizarte berdeago eta justuago bat lortu behar dugu. Eraldaketa hori posible dela erakutsi behar dugu, eta, gainera, guztiontzat onura argiak sortzen ditu epe ertain eta luzera. Gure eredu energetikoa, garraioa, elikadura-sistema birpentsatzen ari gara. Gizartea kontzientziatuago dago, eta horrek enpresa-mundua mugiarazten du, non ekonomia zirkularreko estrategiak praktikan jartzen hasten diren.